

## KONTROL MOZIOA

### Donostiako irisgarritasun-plana dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko otsailaren 12an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Irisgarritasun unibertsalak bizitza sozial eta komunitarioa oztopatzen duten oztopo fisikoak eta komunikazioaren alorrekoak desagerraraztea du helburu. Hori horrela, pausoz pauso Donostia irisgarri bat lortzera iritsi beharko genuke.

Horretarako, gure hiriko espazioak, eraikin publikoak, lantokiak, etxebizitzak... irisgarri izan beharko lirateke. Bakarrik horrela bermatuko genituzke desgaitasuna duten pertsona guztien eskubideak; desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizi ahal izan daitezen eta gizartean erabat parte hartu ahal izan dezaten, berdintasun-baldintzetan.

Eusko Jaurlearitzako Irisgarritasuna sustatzeko kontseiluak "Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Proposamena" egin zuen 2019ko azaroan. Bertan, hitzez hitz horrela jartzen du: "EAEko udalak beharturik daude irisgarritasun plan bat izatera".

Udal Gobernuak adierazi zuenarengatik irisgarritasun plana jada egina dago eta jasotako informazioaren arabera, irisgarritasun plan horrek 45 eraikin publikoren irisgarritasuna aztertu du. Nahiz eta Udal Gobernuak duela ia urtebete plana egina zegoela adierazi zuen, oraindik ere ez du irisgarritasun planik aurkeztu.

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 - eh\_bildu@donostia.eus - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Hortaz, eta planari buruz ez dakigunez ezer ere, horri buruzko interpelazioa egin genuen otsailaren 12ko udal batzordeetan.

Bertan, zinegotzi ordezkariak erantzun zigun plana ez dela publiko egin dokumentu luzea delako eta Udal Gobernuaren asmoa dela irisgarritasunari lotutako hainbat neurri onartzen joatea plana zatika ezartzeko. Zinegotziaren hitzetan ere, egin beharreko ekintzak aurkeztu egingo dituzte eta gainerako udal taldeekin partekatu.

Bestalde, oraintxe publiko egindako Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planak, zeina alegazio epean dagoenak, 1.13 puntuan, “Dibertsitate funtzionala duten pertsonen mugikortasuna hobetzeko estrategia”-ri dagokionez adierazten du (hitzez hitz) estrategia horrek *“gainera, lerrokatuta egon beharko du Irisgarritasun Planarekin eta plan horrek aurreikusten dituen helburu eta neurriekin behar den konexioa jasoko du.”*

Eta ez hori bakarrik, plana egiteko orduan gure hiriko errealitatea kontuan hartzea ezinbestekoa da. Azken datuen arabera, Donostiako gizartea mendebaldeko beste gizarte batzuk baino erritmo biziagoan zahartzen ari dira, eta datozen 30 urteetan ere hala jarraituko duela aurreikusi da. Gaur egun, 65 urtetik gorako pertsonen biztanleria osoarekiko proportzioa % 25,3koa da, Estatuko (% 20,2), EAEko (% 23,2) eta Gipuzkoako (% 23,1) batez bestekoak gainditzen dituen.

Gainera, gure hiriko topografia kontuan izanik, ia biztanleen erdiak beheko aldeko eremuetan bizi dira, % 3ko malda baino gutxiagoko eremuetan (hala nola, Benta Berri, Gros, Erdigunea eta abar). Baina gainerakoak % 10etik gorako malda duten eremuetan bizi dira. Horien artean, Egia, Ulia eta Altza, esaterako, eremu aldapatsuen adibideak dira.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Hortaz, plana 2004tik egin gabe dagoenez, Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planean aipamena egiten denez eta gure hiriko egoera ikusirik, beharrezkoa ikusten dugu lehenbailehen Donostiako Irisgarritasun Plana ezagutzea eta publiko egitea gure hiria benetan irisgarri izan dadin.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Irisgarritasun Plana lehenbailehen udal taldeekin eta eragileekin partekatu eta publiko egin dezala, eta behar diren saioak egin ditzala eragile eta herritarren partaidetza sustatzeko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari 2023-2027 agintaldirako ekintza-plana zehaztu eta horretarako kronograma bat eta aurrekontu bat aurkeztu dezala.

Donostian, 2024ko otsailaren 15ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia